

31. AKTA

Zerbitzu Orokorren Batzordea

Batzar mota: Ohikoa

Eguna: 2026-03-16

Ordua: 11:40 h

Tokia: Loretope aretoa

Batzordeburua: Ana Lopez Loiarde

Etorritakoak:

Zinegotziak:

Kerman Orbegozo Uribe

Martin Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego (*11:48an irten da*)

Markel Ormazabal Gaztañaga

Izar Hernando Ibero

Iñigo Garcia Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Vanessa Velez de Pablos

Arantza Gonzalez Garcia

Beste zinegotzi batzuk:

Idoia Gracia Monge (*11:49anan bertaratu da bilkurara eta 12:01ean irten da*)

Victor Lasa Briz (*11:45ean bertaratu da bilerara eta 12:22an irten da*)

Idazkaria: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

ACTA Nº 31

Comisión de Servicios Generales

Sesión: Ordinaria

Día: 16-03-2026

Hora: 11:40 h

Lugar: Sala Loretope

Presidente: Ana López Loiarde

Asistentes:

Concejales y concejales:

Kerman Orbegozo Uribe

Martín Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego (*se retira de la sesión a las 11.48 h*)

Markel Ormazabal Gaztañaga

Izar Hernando Ibero

Iñigo García Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Vanessa Vélez de Pablos

Arantza González García

Otros concejales y concejales:

Idoia Gracia Monge (*se incorpora a la sesión a las 11:49 h y se retira a las 12:01 h*)

Victor Lasa Briz (*se incorpora a la sesión a las 11:45 h y se retira a las 12.22 h*)

Secretario: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación de la Secretaria General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:



GZK 1.- Premiazko Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Alkateak osoko bilkuraren akordioak bete nahi ez izateari buruzkoa.

Aldez aurretik, Batzordeburuak adierazi du, Elkarrekin Donostia Taldeak premiazko interpelazioa aurkeztu duela Alkateak osoko bilkuraren akordioak bete nahi ez izateari buruzkoa. Gai zerrendan sartu gabe dagoenez, aztertuko bada, aldez aurretik premiazkotzat jo behar da gehiengo osoz.

Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Bozketa egin eta baztertu da premiaz aztertu beharra, honako botoak eman direla:

- Aldeko botoak: 4 (3, EH BILDU; 1, ELKARREKIN DONOSTIA).
- Kontrato botoak: 6 (4, EAJ-PNV; 2, PSE-EE).
- Abstentzioak: 1 (PP).

1.- 2026ko martxoaren 16an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 30. akta, 2026ko otsailaren 16an egindako bilerari dagokiona.

2.- Donostia Kulturako (San Telmo Museoan) hainbat posturen amortizazioa, iraungipena eta sorrera onartzea.

Gaia bototara jarri eta aldeko irizpena izan du, aho batez.

3.- Donostia Kulturako (Administrazio Baliabideen Kudeaketa Saialeko) hainbat posturen iraungipena eta sorrera onartzea.

Gaia bototara jarri eta aldeko irizpena izan du, aho batez.

4.- Donostia Kulturako (Komunikazio eta Irudi Saileko) postu bat iraungitzea eta sortzea onartzea.

Gaia bototara jarri eta aldeko irizpena izan du, aho batez.

Bertaratutako guztien adostasunaz, Batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du

FOD 1.- Interpelación urgente, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la negativa del Alcalde a ejecutar los acuerdos del Pleno.

Con carácter previo, la Presidenta de la Comisión señala que el Grupo Elkarrekin Donostia ha presentado una interpelación urgente, sobre la negativa del Alcalde a ejecutar los acuerdos del Pleno. Al no figurar en el orden del día, requiere para su tratamiento que se declare previamente la urgencia, por mayoría absoluta.

Todo ello en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Sometida a votación, se rechaza la urgencia del asunto, con los siguientes votos:

- Votos a favor: 4 (3, EH BILDU; 1, ELKARREKIN DONOSTIA).
- Votos en contra: 6 (4, EAJ-PNV; 2, PSE-EE).
- Abstenciones: 1 (PP).

1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 16 de febrero de 2026.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 30, correspondiente a la sesión celebrada el día 16 de febrero de 2026.

2.- Aprobar la amortización, la extinción y la creación de diversos puestos en Donostia Kultura (Museo San Telmo).

Sometido a votación el asunto, es informado favorablemente, por unanimidad.

3.- Aprobar la extinción y la creación de diversos puestos en Donostia Kultura (Área de Administración y Gestión de Recursos).

Sometido a votación el asunto, es informado favorablemente, por unanimidad.

4.- Aprobar la extinción y la creación de un puesto en Donostia Kultura (Área de Comunicación e Imagen)

Sometido a votación el asunto, es informado favorablemente, por unanimidad.

Con la conformidad de todos/as los/as presentes, la Presidenta decide alterar el orden de tratamiento



eta ondoren 10.1. gaia aztertu da.

* * * *

10.1.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Altzako Udaletxe zaharrari buruzkoa.

Garbiñe Alkiza andreak interpelazio hau aurkeztu du:

(11:45ean Victor Lasa jauna bertaratu da)

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Maisterrena Alkateari Altzako Udaletxe zaharrari buruzkoa, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Gune Publikoen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

2024ko apirilean, Donostiako Udalak Altzako Harrobieta plazako 17. zenbakiko instalazioetara lekualdatu zuen Ekialdeko Barrutiaren egoitza. Ekialdeko Barrutiko egoitza hartzeaz gain, instalazio berri hauek Udalinfo Herritarren Arretarako Zerbitzua ere eskaintzen dute.

Egoitza berria ireki arte, San Martzial plazako eraikina, Altzako Udaletxe zaharra alegia, erabiltzen zen zerbitzu horiek emateko. Orduan jada, Udal Gobernuak ez zuen argitu zer gertatuko zen San Martzial plazako eraikinarekin.

la 2 urte pasatu dira, eta Udaletxe zaharrak itxita eta hutsik jarraitzen du; soilik San Martzial jaietan erabili ohi da. Eraikina itxi zenetik Altzatarrak gai horrekin kezkatuta, eraikinari erabilera bat emateko eskatzen hasi ziren, berea den etxea erabili ahal izateko.

Altzako Historia Mintegiak ere, bere egin zuen eskaera eta horregatik, Udal Gobernuak barrutiaren egoitza lekualdatzeko asmoa adierazi zuenean jada, 2019an, eraikina berritzeko proposamena aurkeztu zuten.

Azken urteetan ere eskaera bera egin izan da Ekialdeko Barrutiko Batzordearen eskutik. Irisgarritasun-arazoak dituela argudiatuta atzeratu izan da eraikinari erabilera bat emateko helburua.

Argi dago, Altzako Udaletxea eraberritu eta gaurkotzea behar dela, non gaurko eraikinak

de los asuntos y a continuación se pasa a tratar el asunto n.º 10.1.

* * * *

10.1.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el antiguo Ayuntamiento de Altza.

La Sra. Alkiza López de Samaniego presenta la siguiente interpelación:

(A las 11:45 h se incorpora el Sr. Lasa Briz a la sesión)

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, Jon Insausti Maisterrena, relativa al antiguo ayuntamiento de Altza, para su respuesta oral en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

En abril de 2024, el Ayuntamiento de San Sebastián trasladó la sede del Distrito Este a las instalaciones de la plaza de Harrobieta 17, en Altza. Además de albergar la sede del Distrito Este, estas nuevas instalaciones ofrecen también el Servicio de Atención Ciudadana Udalinfo.

Hasta la apertura de la nueva sede, estos servicios se prestaban en el edificio de la plaza de San Marcial, antiguo ayuntamiento de Altza. Sin embargo, el Gobierno municipal no aclaró qué iba a pasar con el edificio de la plaza de San Marcial.

Han pasado casi dos años y el antiguo ayuntamiento sigue cerrado y vacío. Tan solo se utiliza en las fiestas de San Marcial. Desde el cierre del edificio, los y las alzatarras, preocupados por esta cuestión, vienen solicitando que se le dé un uso a este edificio, para que puedan utilizar una casa que les pertenece.

Altzako Historia Mintegia también hizo suya la solicitud y, por ello, en 2019, cuando el Gobierno municipal manifestó su intención de trasladar la sede del distrito a otro lugar, presentó una propuesta de reforma del edificio.

En los últimos años se ha venido realizando la misma solicitud por parte de la Junta del Distrito Este. Sin embargo, el objetivo de dar un uso al edificio se ha ido posponiendo alegando que el edificio presenta problemas de accesibilidad.

Es evidente que es preciso acometer la reforma y actualización del ayuntamiento de Altza para que



betetzen ez dituen oinarritzko baldintzak, irisgarritasuna bereziki, beteko duen.

Baina urteak joan ahala, eraikina are eta gehiago izorratuko da eta egin beharreko inbertsioak handiagoak izan dira.

Hortaz, lehenbailehen erabilera bat ematea litzateke egokiena, bai eraikina bere horretan mantentzeko, bai eta eraikinean Altzatarren beharrei erantzungo dieten zerbitzuak emateko.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez da Udal Gobernuak Altzako Udaletxe zaharra eraberritzeko eta irisgarri bihurtzeko proiekturik egin? Noiz egingo du?
- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Altzako Udaletxe zaharrarentzako erabilerarik aurreikusi? Zer asmo du etorkizun batean eraikin honekin?
- Asmorik al du Altzatarrekin batera eralkinaren erabilerari buruzko hausnarketarik egiteko?

Donostian, 2026ko martxoaren 6an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Kerman Orbegozo jaunak eta Garbiñe Alkiza andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(11:48an Garbiñe Alkiza andrea irten da)

Jarraian, deialdian aurreikusitako gaiak aztertzeko hurrenkerari ekin diote berriro.

5.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Udalbatzarretako batzordeen eta Udalbatzarretako emanaldien itzulpen faltari buruzkoa.

Vanessa Velez andreak interpelazio hau aurkeztu du:

(11:49an Idoia Gracia andrea bertaratu da)

el edificio actual cumpla con las condiciones básicas, especialmente las de accesibilidad.

Sin embargo, con el paso de los años, el edificio se deteriorará aún más y habrá que realizar una inversión mayor.

Por lo tanto, lo ideal sería darle un uso lo antes posible, tanto para poder mantener el edificio actual, como para prestar en él servicios que respondan a las necesidades de los y las alzatarras.

Es por ello, por la que concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo no el Gobierno municipal ha realizado ningún proyecto de reforma y accesibilidad del antiguo ayuntamiento de Altza? ¿Cuándo lo va a hacer?
- ¿Por qué no ha previsto el Gobierno municipal ningún uso para el antiguo ayuntamiento de Altza? ¿Qué pretende hacer con este edificio en un futuro?
- ¿Tiene intención de reflexionar junto con los y las alzatarras sobre el uso de esta modalidad?

Donostia, a 6 de marzo de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen en este punto el Sr. Orbegozo Uribe y la Sra. Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 11:48 h se retira la Sra. Alkiza López de Samaniego)

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

5.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de traducción de las Comisiones de Pleno y las retransmisiones de los Plenos.

La Sra. Vélez de Pablos presenta la siguiente interpelación:

(A las 11:49 h se incorpora la Sra. Gracia Monge)



“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Udaltzaren bilkuretan eta batzordeetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Osoko bilkuren zuzeneko emanaldia Udalaren webgunean egiten da, Youtube plataformaren bidez, baina emanaldi horiek ez dira emititzen Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan edo azpidatziekin, eta, ondorioz, mugatuta dago donostiarrek gertatzen dena entzuteko eta ulertzeko duten eskubidea. Aldibereko itzulpena (azpidatziak) behin egin bazen ere, azken osoko bilkuran ez da horrela izan.

Antzeko zerbait gertatzen da Udaltzaren batzorde orokorren grabazioekin, batzorde horretako kideen hitz-hartzeak baino ez baitira geratzen jasota. Horrek informazio publikorako sarbidea mugatzen die euskara ulertzen ez dutenei, eta horrek gardentasun instituzionalari erasaten dio.

Gure ustez, horrek guztiak ez du betetzen Espainiako Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritako hizkuntza-koofizialtasunaren printzipioa.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duenak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

1. Zergatik ez da eman azken osoko bilkuran aldibereko itzulpena azpidatzitza?
2. Hilabete asko dira emango zela esan zenetik, baina beti dago ez emateko "arazo teknikoren bat". Noiz konponduko dituzue arazo guztiak?
3. Zergatik ez dira grabatzen batzordeetako aldibereko itzulpenak euskara ulertzen ez dutenek informazio hori eskuratu ahal izan dezaten?
4. Zer egin behar duzue horrekin?
5. Noiz hartuko dituzue neurriak, Espainiako Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan xedatutako hizkuntza-koofizialtasunaren printzipioa betetzeko?

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión de Servicios Generales, sobre la falta de traducción de las comisiones de pleno y las retransmisiones de los plenos.

JUSTIFICACIÓN

La retransmisión de los plenos municipales a través de la web del Ayuntamiento, vía youtube, sigue limitando el derecho de los donostiaras a poder escuchar y saber lo que sucede al no emitirse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o con subtítulos. Si bien es cierto que sí se emitió la traducción simultánea (subtítulos) en una ocasión, en el último pleno no fue así.

Un hecho similar ocurre con las grabaciones y ahora retransmisiones de las Comisiones generales de pleno que recogen exclusivamente la intervención de los miembros de dicha comisión. Este hecho limita el acceso a la información pública a quienes no comprenden el euskera, hecho que afecta a la transparencia institucional.

Consideramos que todo esto incumple el principio de cooficialidad lingüística establecida en la Constitución Española y en el Estatuto de Autonomía.

Por todo ello, el abajo firmante se formula la siguiente INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son las razones por las que en el último pleno no se han emitido la traducción simultánea, en subtítulos?
2. Son ya muchos meses desde que se dijo que sí se iba a hacer pero siempre hay “algún problema técnico” por el que no se realizan ¿cuándo piensan solventar todos los problemas?
3. ¿Cuáles son las razones por las que a día de hoy no se traducen las comisiones de pleno para que aquellas personas que no comprenden el euskera puedan acceder a esa información?
4. ¿Qué piensan hacer al respecto?
5. ¿Cuándo van a tomar cartas en el asunto para cumplir el principio de cooficialidad lingüística establecido tanto en la Constitución Española como en el Estatuto de Autonomía?



Donostia, 2026ko martxoaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

Ana Lopez eta Vanessa Velez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

6.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Arartekoak gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruz emandako gomendioak ez betetzeari buruzkoa.

Victor Lasa jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

“Victor Lasa Elkarrekin Donostia uda-talde mistoko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 138. artikulua babesean, INTERPELAZIO hau egiten dio Auzoetako eta Herri Partaidetzako zinegotzi ordezkari Idoia Graciari, Udalak gardentasunaren eta informazio publikorako sarbidearen arloan dituen betebeharrak betetzeari buruz, Zerbitzu Orokorren Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Arartekoak duela gutxi gomendio bat igorri dio Donostiako Udalari, herritarren elkarte batek informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaera jakin batzuei epe eta modu egokian erantzuteko eskatuz, eta gogoraraziz eskaera horiek gardentasunaren arloko araudiaren arabera izapidetzeko eta ebazteko legezko betebeharra duela.

Arartekoak esku hartu izanak agerian uzten du gabeziak egon daitezkeela informazio publikoa eskuratzeko eskaeren udal-kudeaketan, eta hori bereziki garrantzitsua da gardentasuna eta kontu ematea gobernu onaren funtsezko zutabeak diren testuinguru batean.

Arartekoak Udalari azkenaldian gardentasun faltari buruz egindako ohartarazpen ugarietako bat da hori.

Horrelako eskaerei ez erantzuteak edo berandu erantzuteak, legez aitortutako eskubideei eragiteaz gain, herritarren udal-konfiantzari ere erasaten dio.

Horiek horrela, hauxe da gure

En San Sebastián, a 6 de marzo de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del grupo municipal Popular”.

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

6.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el incumplimiento de recomendaciones del Ararteko en materia de transparencia y acceso a la información pública.

El Sr. Lasa Briz presenta la siguiente interpelación:

“Dr. Víctor Lasa, Portavoz del Grupo Municipal Mixto Elkarrekin Donostia, al amparo de lo establecido en el artículo 138 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, dirigida a la Concejala Delegada de Barrios y Participación Ciudadana, Dña. Idoia Gracia, para su tratamiento en la Comisión de Servicios Generales, en relación con el cumplimiento de las obligaciones municipales en materia de transparencia y acceso a la información pública.

JUSTIFICACIÓN

El Ararteko ha emitido recientemente una recomendación dirigida al Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián instándole a atender en plazo y forma determinadas solicitudes de acceso a información pública presentadas por una asociación ciudadana, recordando la obligación legal de tramitar y resolver dichas solicitudes conforme a la normativa vigente en materia de transparencia.

La intervención del Ararteko pone de manifiesto posibles deficiencias en la gestión municipal de las solicitudes de acceso a información pública, cuestión especialmente relevante en un contexto en el que la transparencia y la rendición de cuentas constituyen pilares esenciales del buen gobierno.

Esta es una de las recientes numerosas ocasiones en las que el Ararteko ha advertido al Ayuntamiento de su falta de transparencia.

El incumplimiento o la demora en la atención de este tipo de solicitudes no solo afecta a derechos reconocidos legalmente, sino que erosiona la confianza ciudadana en la institución municipal.

Por lo tanto, presentamos la siguiente



INTERPELAZIOA

1. Donostiako Udalak zergatik ez die epe eta modu egokian erantzun Arartekoaren gomendioa eragin duten informazio publikoa eskuratzeko eskaerei?
2. Zer balorazio politiko egiten du udal-gobernuak Arartekoak emandako gomendioari buruz eta eskaera horien izapidetzean adierazitako akatsei buruz?
3. Zer neurri zehatz hartu dira edo hartuko dira informazio publikoa eskuratzeko eskaera guztiak gardentasun-araudiaren arabera eta legez ezarritako epeen barruan izapidetu eta ebatziko direla bermatzeko?
4. Gaur egun ba al dago barne-protokolorik informazio publikoa eskuratzearen arloko ebazpen-epeen jarraipena eta kontrola egiteko? Udal-gobernuak zehaztu al dezake haren funtzionamendua?

Donostia, 2026ko martxoaren 5a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea”.

Idoia Gracia andreak eta Victor Lasa jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(12:01ean Idoia Gracia andrea irten da)

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak erabaki du gai-zerrendako 7. gaia, 9. gaia eta Bozeramaile Batzordetik bidalitako 10.3 ekimenak batera jorratzea, aztergaien hurrenkera aldatuz.

* * * *

7.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, “Donostiarra” argitalpen instituzionalari eta Udalaren komunikazio instituzionalerako irizpideei buruzkoa.

Victor Lasa jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

“Elkarrekin Donostia Udal Talde Mistoaren bozeramaile Víctor Lasa jaunak, Udalbatzaren

interpelación:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué el Ayuntamiento de Donostia no atendió en plazo y forma las solicitudes de acceso a información pública que motivaron la recomendación del Ararteko?
2. ¿Qué valoración política realiza el Gobierno municipal sobre la recomendación emitida por el Ararteko y sobre las deficiencias señaladas en la tramitación de dichas solicitudes?
3. ¿Qué medidas concretas se han adoptado o se van a adoptar para garantizar que todas las solicitudes de acceso a la información pública se tramiten y resuelvan conforme a la normativa de transparencia y dentro de los plazos legalmente establecidos?
4. ¿Existe actualmente un protocolo interno de seguimiento y control de los plazos de resolución en materia de acceso a información pública, y puede el Gobierno municipal detallar su funcionamiento?

Donostia, a 05 de Marzo de 2026

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

Intervienen en este punto la Sra. Gracia Monge y el Sr. Lasa Briz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 12:01 h se retira la Sra. Gracia Monge)

* * * *

Con la conformidad de todos los y las miembros de la comisión presentes, la Presidenta decide tratar de forma conjunta los asuntos n.º 7, n.º 9 y la iniciativa remitida por la Junta de Portavoces n.º 10.3 alterando el orden del día.

* * * *

7.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la publicación institucional “Donostiarra” y los criterios de comunicación institucional del Ayuntamiento.

El Sr. Lasa Briz presenta la siguiente interpelación:

“Dr. Víctor Lasa, Portavoz del Grupo Municipal Mixto Elkarrekin Donostia, al amparo de lo



Organo Araudiaren 134. artikulua babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, "Donostiarra" argitalpen instituzionalari eta Donostiako Udalaren komunikazio instituzionalerako irizpideari buruzkoa, Zerbitzu Orokorren Batzordean joratzeko.

INTERPELAZIOA

Duela gutxi, Donostiako Udalak "Donostiarra" aldizkari instituzionala banatu du herritarren artean. Argitalpen hori baliabide publikoekin finantzatzen da, eta udal-jarduerari eta hiri-proiektu nagusiei buruzko informazioa ematea du helburu.

Komunikazio instituzionala herritarrei kontuak emateko eta gardentasunerako tresna legitimoa da. Hala ere, funts publikoekin finantzatzen denean, zorrotz errespetatu behar ditu printzipio hauek: neutraltasun instituzionala, aniztasun demokratikoa eta udal-erakundearen eta unean-unean gobernuan dauden alderdien interesak ongi bereiztea.

Illo horretan, argitalpen horren edukia eta diseinua aztertu ostean, hainbat aipamen egin nahi ditugu, hain zuzen ere politika publikoak aurkezteko moduari buruz, erakundearen jardunaren inguruan alkateari emandako protagonismoari buruz eta egungo udal-gobernuari hainbat administrazioen mende dauden edo aurreko agintaldietan hasi ziren proiektuak edo azpiegiturak inplizituki esleitzeari buruz.

Era berean, aldizkariak udal-gobernuaren lorpenetan eta proiektuetan jartzen du arreta, Udalbatzaren eginkizunari eta udal-korporazioan dagoen aniztasun politikoari erreferentziarik egin gabe.

Horrez gain, arreta berezia merezi duen beste elementu bat ere badago: antzekotasun estetiko handia dago aldizkari instituzionalean erabilitako linea grafikoaren eta alkatearen sare sozialetako komunikazio publikoetan erabiltzen diren grafiken artean.

Zehazki, ikonografia, ikusizko elementuak, tipografiak eta edizio-konposizioak ia berdinak dira Udalak finantzatutako aldizkari instituzionalean eta alkateak sare sozialetan duen kontu pertsonaletik zabaldutako eduki jakin batzuetan, non, gainera, logotipo tipografiko bat agertzen baita alkatearen izenari lotuta.

establecido en el artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, dirigida al Alcalde, D. Jon Insausti, para su tratamiento en la Comisión de Servicios Generales, relativa a la publicación institucional "Donostiarra" y los criterios de comunicación institucional del Ayuntamiento de Donostia.

JUSTIFICACIÓN

En fechas recientes el Ayuntamiento de Donostia ha distribuido entre la ciudadanía la revista institucional "Donostiarra", una publicación financiada con recursos públicos cuyo objetivo declarado es informar sobre la actividad municipal y los principales proyectos de ciudad.

La comunicación institucional constituye una herramienta legítima de rendición de cuentas y transparencia hacia la ciudadanía. No obstante, cuando se financia con fondos públicos debe respetar estrictamente los principios de neutralidad institucional, pluralismo democrático y separación entre la institución municipal y los intereses de los partidos que ejercen el gobierno en cada momento.

En este sentido, el análisis del contenido y del diseño de la citada publicación plantea diversas cuestiones relativas a la forma en que se presentan las políticas públicas, el protagonismo otorgado al alcalde en el relato institucional y la atribución implícita al actual gobierno municipal de proyectos o infraestructuras que dependen de diferentes administraciones o que se iniciaron en mandatos anteriores.

Asimismo, la revista presenta un relato de ciudad centrado en los logros y proyectos del gobierno municipal, sin referencias al papel del Pleno ni a la pluralidad política existente en la corporación municipal.

A estas cuestiones se suma un elemento adicional que merece especial atención: la similitud estética entre la línea gráfica utilizada en la revista institucional y la empleada en diversas comunicaciones públicas del alcalde en sus redes sociales.

En particular, se observa una coincidencia significativa en el uso de iconografía gráfica, elementos visuales, tipografías y composiciones editoriales entre la revista institucional financiada por el Ayuntamiento y determinados contenidos difundidos desde la cuenta personal del alcalde en redes sociales, donde además aparece un logotipo tipográfico asociado a su propio nombre.



Bat etortze estetiko horrek Udalaren irudi instituzionala alkatearen marka politiko edo pertsonalarekin identifikatzea eragin dezake, eta horrek zalantza legítimoak planteatzen ditu komunikazio instituzionalaren diseinuan erabilitako irizpideen inguruan, bai eta eta komunikazio instituzionalaren eta komunikazio politikoaren arteko bereizketaren inguruan ere.

Hori guztia bereziki garrantzitsua da komunikazio-pieza horiek baliabide publikoekin finantzatzen direnean eta herritarren artean masiboki banatzen direnean.

Aipatutako guztiagatik, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Argitalpenak zergatik ematen dio protagonismo nagusia alkatearen figurari, hain zuzen ere liburuxkaren sarreran, gutun instituzional eta material grafiko bidez, kontuan hartuta baliabide publikoekin finantzatutako argitalpen bat dela?
2. Zer argitalpen- eta komunikazio-irizpide jarraitu ditu Udal Gobernuak argitalpen instituzional horretan jasotako edukiak zehazteko?
3. Zer irizpide aplikatu dira Udalaren komunikazio instituzionalak neutraltasun politikoaren eta erakundearen eta gobernuaren arteko bereizketaren printzipioak errespetatuko dituela bermatzeko?
4. Udal Gobernuaren ustez, egokia al da argitalpen instituzional batean udal-ekintzaren parte gisa aurkeztea beste administrazio publiko batzuei neurri handi batean dagozkien proiektuak edo azpiegiturak?
5. Zein udal atal edo kanpoko erakunde arduratu da "Donostiarra" aldizkariaren diseinu grafikoaz eta linea estetikoaz?
6. Ba al dago Donostiako Udalaren komunikazio instituzionalerako nortasun grafiko zehatzik eta zeintzuk dira haren erabilera arautzen duten irizpideak?
7. Udal Gobernuak kontuan hartu al du nahasmenik sor daitekeen, argitalpen instituzionalerako erabilitako estetika bisuala bat datorrelako alkateak sare sozialetan komunikazio pertsonal edo politikoetan

Esta coincidencia estética puede generar la percepción de una identificación entre la imagen institucional del Ayuntamiento y la marca política o personal del alcalde, lo que plantea interrogantes legítimos sobre los criterios utilizados en el diseño de la comunicación institucional y sobre la separación entre comunicación institucional y comunicación política.

Todo ello resulta especialmente relevante cuando dichas piezas de comunicación se financian con recursos públicos y se distribuyen masivamente entre la ciudadanía.

Por todo lo anterior, presentamos la siguiente interpelación:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo la publicación otorga un protagonismo central a la figura del alcalde en la apertura del número mediante carta institucional y material gráfico, cuando se trata de una publicación financiada con recursos públicos?
2. ¿Qué criterios editoriales y de comunicación ha seguido el Gobierno municipal para determinar los contenidos incluidos en esta publicación institucional?
3. ¿Qué criterios se han aplicado para garantizar que la comunicación institucional del Ayuntamiento respete los principios de neutralidad política y separación entre institución y gobierno?
4. ¿Considera el Gobierno municipal adecuado que en una publicación institucional se presenten como parte de la acción municipal proyectos o infraestructuras cuya ejecución corresponde en gran medida a otras administraciones públicas?
5. ¿Qué departamento municipal o entidad externa ha sido responsable del diseño gráfico y la línea estética de la revista "Donostiarra"?
6. ¿Existe una identidad gráfica específica definida para la comunicación institucional del Ayuntamiento de Donostia y cuáles son los criterios que regulan su uso?
7. ¿Ha valorado el Gobierno municipal la posible confusión que puede generarse cuando la estética visual utilizada en publicaciones institucionales coincide con la utilizada en comunicaciones personales o políticas del



erabilitakoarekin?

8. Udal Gobernuaren ustez, egokia al da baliabide publikoekin finantzatutako erakunde-komunikazioan erabilitako elementu grafiko, ikonografiko edo tipografikoak alkatearen branding pertsonal edo politikoan ere agertzea?
9. Zer kontrol- edo gainbegiratze-mekanismo daude Udalean komunikazio instituzionala udal-gobernuaren edo haren ordezkarien sustapen politikorako tresna izan ez dadila bermatzeko?
10. Udalak aurreikusita al dauka komunikazio instituzionalaren arloko jardunbide egokien protokoloak edo kodeak ezartzea edo indartzea, neutraltasun politikoa eta baliabide publikoen erabilera egokia bermatzeko?

Donostia, 2026ko martxoaren 5a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea”.

10.3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, “Donostiarra” eskuorriari buruzkoa.

Vanessa Velez andreak interpelazio hau aurkeztu du:

“Vanessa Vélez De Pablos Talde Popularreko zinegotziak, Udaltzataren Organo Araudiaren 134. artikuluan babesean, Donostia*rra liburuxkari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Martiarena alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Azken asteotan, gure etxeko postontzian alkateak aurkeztu eta sinatutako liburuxka bat jaso dugu. Bigarren orrialdean, alkatearen aurkezpen-gutun bat dago, donostiarrei zuzendua, "Donostia donostiarrontzat" leloarekin amaitzen dena.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik banatu die donostiarrei liburuxka hori postontzietan?
2. Zer helburu lortu nahi du gobernu-taldeak liburuxka horrekin?

alcalde en redes sociales?

8. ¿Considera el Gobierno municipal apropiado que elementos gráficos, iconográficos o tipográficos empleados en comunicación institucional financiada con recursos públicos aparezcan también asociados al branding personal o político del alcalde?
9. ¿Qué mecanismos de control o supervisión existen en el Ayuntamiento para garantizar que la comunicación institucional no derive en una herramienta de promoción política del gobierno municipal o de sus representantes?
10. ¿Tiene previsto el Ayuntamiento establecer o reforzar protocolos o códigos de buenas prácticas en materia de comunicación institucional para garantizar la neutralidad política y la correcta utilización de los recursos públicos?

Donostia, a 05 de Marzo de 2026

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

10.3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el folleto “Donostiarra”.

La Sra. Vélez de Pablos presenta la siguiente interpelación:

“Vanessa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Martiarena, en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre el folleto Donostia*rra.

JUSTIFICACIÓN

A lo largo de las últimas semanas, hemos recibido en los buzones de nuestros domicilios un folleto presentado y firmado por el Sr. Alcalde. En su página 2, encontramos una carta de presentación del Alcalde dirigida a las y los donostiarras que finaliza con su claim “Donostia donostiarrontzat”.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno ha buzoneado este folleto a los donostiarras?
2. ¿Cual es el objetivo que persigue el equipo de gobierno con este folleto?



3. Talde Popularrak aurkeztutako eduki ekonomikorik gabeko zuzenketetako batek, aurrekontuetan sartu zenak, honela zioen: "Donostiako Udalak eta haren mendeko erakunde guztiak argitaratutako publizitate-dokumentu eta -ale guztietan inprimatutako ale-kopurua eta azken kostua eta kostu unitarioa txertatzea".

Postontzietan banatutako liburuxkak ale bakoitzeko kostua jasotzen du (0,88 €), baina ez ale-zenbakia, eta ezta guztizko kostua ere.

Zergatik ez du bete gobernu-taldeak 2026ko aurrekontuan jasotako mandatua?

4. Gobernu-taldeak ba al du asmorik hemendik aurrera Udalaren eta haren mendeko erakundeen publizitate-ale guztietan hala jarduteko?

5. Hala bada, noiz?

6. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

7. Zein izan da aipatutako proiektuaren diseinua, gauzatzea eta banaketa adjudikatzeko kontratazio-espedita? Ze atalek kudeatu du?

8. Zergatik aukeratu da diseinu eta tipografia hori?

Donostia, 2026ko martxoaren 5a.

Vanesa Vélez De Pablos
Udaleko PP taldeko zinegotzia".

9.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Udalak eta alkateak egiten ari diren publizitate-kanpainei buruzkoa.

Markel Ormazabal jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

"Jabier Vitoria Roma, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Araudi Organikoaren 134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Maizterrenari, alkateari, azkeneko hilabetetan Udaletxeak eta alkateak berak egiten ari diren propaganda kanpainei buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiar asko jasotzen ari gara

3. Una de las enmiendas sin contenido económico presentadas por el Grupo Popular que fue incorporada a los presupuestos decía: Incorporar en todos los documentos y ejemplares publicitarios editados por el Ayuntamiento de San Sebastián y todas las entidades dependientes de éste, el número de ejemplares impresos y el coste tanto final como unitario.

El folleto buzoneado incluía el coste por ejemplar (0,88€); sin embargo, no indicaba el número de ejemplar, ni el coste total.

¿Cuales son los motivos por los que el equipo de gobierno no ha cumplido con el mandato recogido en el Presupuesto de 2026?

4. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de realizarlo a partir de ahora en todos los ejemplares publicitarios tanto del propio ayuntamiento, como de las entidades dependientes de este?

5. En caso afirmativo, ¿cuándo?

6. En caso negativo, ¿por qué?

7. ¿Cuál ha sido el expediente de contratación por el cual se adjudicó el diseño, la realización y distribución del mencionado proyecto y qué departamento lo ha gestionado?

8. ¿Cuales son los motivos por los cuales se ha elegido ese diseño y tipografía?

En San Sebastián, a 5 de marzo de 2026

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP".

9.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las campañas publicitarias que están haciendo el Ayuntamiento y el Alcalde.

El Sr. Ormazabal Gaztañaga presenta la siguiente interpelación:

"Jabier Vitoria Roma, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, relativa a las campañas de propaganda impulsadas por el Ayuntamiento y por el alcalde en los últimos meses, al alcalde Jon Insausti Maizterrena.

JUSTIFICACIÓN

En las últimas semanas/últimos días, muchos



“DONOSTIARRA” liburuxka azkeneko egun/asteetan. Bertan azaltzen da ale bakoitzeko prezioa: 0,88 euro direla. Ez dakigu zenbat ale banatu diren, baina edozein kasutan gastu inportante bat izan dela aurreikusi daiteke, ez bakarrik inprimatzeko gastuengatik, baizik eta aurretik eta banaketan egindako lanketarekin.

Beste alde batetik, baita ere ikusi dugu iragarki batzuk alkatearen logoarekin soilik zabaltzen direla, eta ez Donostiako Udalaren izenarekin. Zalantzak sortzen zaizkigu hauek Udalaren izenean edo mesedetan egiten ote diren edo beste interes jakin batzuen mesedetan.

Honekin guztiarekin batera, ikusi dugu komunikaziorako giza baliabideak ugaritu egin direla, udal langileetatik haratago.

Horiek horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta egiten ari da Udal-Gobernua ekimen publizitario hauek guztiak?
- Zenbat ale inprimatu dira eta ze kostu izan du “Donostiarra” liburuxkaren kanpainak? Zein diru-lerrotik finantzatu da? Kontratatorako zein lizitazio-prozedura egin da? Kanpaina hau bestelako euskarri motetan egitea aurreikusi al da?
- Jon Insausti bezala sinatutako iragarki eta kanpaina publizitarioak nola finantzatu dira?
- Zenbat langile dabilta kanpaina hauek aurrera ateratzeko lanean? Zenbat dira udal langileak? Besteak nola finantzatu dira? Ze kostu dute hauek? Ze diru-lerrotik finantzatu dira?

Donostian, 2026ko martxoaren 6an

Jabier Vitoria Roma
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Ana Lopez andreak, Victor Lasa jaunak, Vanessa Velez andreak eta Markel Ormazabal jaunak hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

donostiarras hemos recibido un folleto titulado “DONOSTIARRA”, donde se indica que el precio por ejemplar es de 0,88 euros. No sabemos de cuántos ejemplares ha sido la tirada, pero en todo caso, puede suponerse que se trata de un gasto importante, no solo por los gastos de imprenta, sino también por los gastos de tareas previas y por los gastos de buzoneo.

Por otro lado, hemos visto que en algunos anuncios, en lugar del logo del Ayuntamiento de San Sebastián, aparece solamente el logo del alcalde. Esto nos lleva a plantearnos si dichas campañas se están llevando a cabo en nombre o por el bien del propio Ayuntamiento, o por el bien de otros intereses en concreto.

Además de lo ya mencionado, hemos visto también que los recursos humanos en comunicación han aumentado, más allá de la propia plantilla municipal.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- El Gobierno Municipal ¿por qué motivo está desarrollando estas iniciativas publicitarias?
- ¿De cuántos ejemplares ha sido la tirada de la campaña del folleto titulado “Donostiarra” y cuál ha sido su coste? ¿Con qué línea se ha financiado? ¿Qué procedimiento de licitación se ha realizado para su contratación? ¿Está previsto realizar esta campaña en otro tipo de soportes?
- ¿Cómo se han financiado los anuncios y campañas publicitarias firmados por Jon Insausti?
- ¿Cuántas personas están trabajando en estas campañas? De todas ellas, ¿cuántas son personal municipal? ¿Cómo se ha financiado el resto del personal? ¿Qué coste tiene este personal? ¿Con qué línea se ha financiado?

San Sebastián, a 6 de marzo de 2026

Jabier Vitoria Roma
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen en estos puntos la Sra. López Loiarde, el Sr. Lasa Briz, la Sra. Vélez de Pablos y el Sr. Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada



(12:22an Victor Lasa jauna irten da)

* * * *

Jarraian, deialdian aurreikusitako gaiak aztertzeko hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

8.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Udaletxean ETAko presoen aldeko propaganda erakusteari buruzkoa.

Vanessa Velez andreak interpelazio hau aurkeztu du:

“Tomás Pascua Martín Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua babesean, udaletxean ETAko presoen aldeko propaganda erakusteari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti Maisterrena alkateari, Zerbitzu Orokorren Batzordean.

INTERPELAZIOA

Donostiako udaletxeko sotoko solairuan, LAB sindikatuaren bulegoen kanpoko beiratean, ETAko presoen aldeko kartel bat dago, erreprografiara daraman korridoretik pasatzean ikus daitekeena. Kartelean «Ezin da gehiago luzatu – Euskal preso iheslari eta deportatuak etxera» jartzen du, eta presoek kolektiboak erabiltzen duen ohiko logotipoa darama.

Talde terroristako presoek amnistia ematea, Euskaditik kanpoko espetxeetan zigorra betetzen ari diren presoak hurbiltzea eta beste herrialde batzuetara ihes egin zutenak itzultzea eskatzen duten pankarta mota horiek ez lukete lekuri izan behar donostiar guztien etxe den espazio batean, udaletxean alegia.

Horrelako ekintzek arriskuan jartzen dute neutraltasun politikoa, terrorismoaren biktimen duintasunerako eskubidea urratzen dute eta bizikidetzarako bidea zailtzen dute.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez dio sindikatuari eskatzen kartel hori kentzeko?
2. Udal-gobernuak ba al du hori egiteko

al Diario de Sesiones.

(A las 12:22 h se retira el Sr. Lasa Briz)

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

8.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la exhibición en el Ayuntamiento de propaganda a favor de presos de ETA.

La Sra. Vélez de Pablos presenta la siguiente interpelación:

“Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Servicios Generales, sobre la exhibición de propaganda a favor de los presos de ETA en el Ayuntamiento.

JUSTIFICACIÓN

En la planta sótano del Ayuntamiento de San Sebastián, en la cristalera exterior de las oficinas del sindicato LAB, se muestra un cartel a favor del colectivo de presos de ETA, que puede verse a su paso por el pasillo que conduce a reprografía. En el cartel puede leerse “Ezin da gehiago luzatu – Euskal preso iheslari eta Deportatuak etxera”, con el logotipo habitual que utiliza el colectivo de presos.

Este tipo de pancartas, que reclaman la amnistía de los presos de la banda terrorista, el acercamiento de los reclusos que cumplen su pena en cárceles fuera de Euskadi y el regreso de quienes huyeron a otros países, no deberían tener cabida en un espacio, el Ayuntamiento, que es casa de todos los donostiarros.

Acciones como estas, comprometen la neutralidad política y vulneran el derecho a la dignidad de las víctimas del terrorismo, dificultando el camino hacia la convivencia.

Por estos motivos, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal no solicita al sindicato que retire el citado cartel?
2. ¿Tiene el Gobierno Municipal intención de



asmorik?

3. Hala bada, noiz?

4. Bestela, zergatik?

Donostia, 2026ko martxoaren 3a

Tomás Pascua Martín
Udal Talde Popularreko zinegotzia”.

Ana Lopez eta Vanessa Velez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

10.- Bozerramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.

10.2.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, udaltzaingoan salatutako ofiziala izendatzeko prozedurari buruzkoa.

Hurrengo interpelazio hau irakurritzat eman dute:

“Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaingoren Araudi Organikoaren 134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Martin Ibabe segurtasun zinegotzi ordezkariari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean LAB sindikatuak egindako salaketa baten harira, duela bi urte bideo batean grabatuta gelditu zen udaltzaingo baten bortxazko jarduketa.

Sindikatuaren arabera, Udaltzaingoren jefaturak neurri administratiboak jarri zituen martxan aipatu agentearekiko, grabazioan ikusten den indarrezko prozedurari lotuta. Berriki, grabazioan agertzen den udaltzaingo hau mailaz igo da.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta onartu du Udal Gobernuak horrelako bortxarekin jardun duen udaltzaingo baten maila-igoera?

hacerlo?

3. En caso afirmativo, ¿cuándo?

4. En caso contrario ¿por qué motivo?

San Sebastián, a 3 de marzo de 2026

Tomás Pascua Martín
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte, y Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

10.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.

10.2.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el procedimiento de nombramiento de Oficial denunciado en la Guardia Municipal.

Se da por leída la siguiente interpelación:

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente interpelación al concejal delegado de Seguridad, Martín Ibabe, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Una denuncia realizada por el sindicato LAB en febrero mostraba la grabación en vídeo de una actuación violenta protagonizada por un agente de la Guardia Municipal hace dos años.

Según el sindicato, la jefatura de la Policía Local puso en marcha medidas administrativas con respecto al citado agente en relación al procedimiento violento que se observa en la grabación. Recientemente, este agente que aparece en la grabación ha sido ascendido de categoría.

Es por ello, por la que concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Cuál es el motivo por el que el Gobierno Municipal ha aceptado el ascenso de un agente de la Guardia Municipal que ha actuado con este tipo de violencia?



Donostian, 2026ko martxoaren 6an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Martin Ibabe jaunak eta Izar Hernando andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Donostian, 2026ko martxoaren 6an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Intervienen en este punto el Sr. Ibabe Eceiza y la Sra. Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko hamabiak eta hogeita hamaseian bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y no habiendo más asuntos, la Presidenta declara terminada la sesión a las doce horas y treinta y seis minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

O.E./Nº Bº
BATZORDEBURUA / LA PRESIDENTA

Ana Lopez Loiarte